

TOKIKOM Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2014ko maiatza • 291. alea



**Herritarrek erabakitzekeo
eskubidearen alde**

**zerbitzua euskaraz
eman nahi dizugu**

lagundu hobetzen



Eskaini 5 minutu galdetgia
erantzuteari eta parte hartu
produktu kulturalak erosteko
50na euroko 3 bonoren zozketan



**bete hemen
galdetgia**

eskerrik asko!



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa
BERRIA

Eibartarrak primeran!



Egoitz Unamuno

Aritz Arizaga

Epa, Aritz!

Bigarren mailako ekiporik txatxarrena eta diru gitxien daukana "munduko ligarik onenian"? baina zer dok hau? Hurrengua zer izango dok, Ronaldo lpuuruan kamisetia kenduta golak ospatzen?

Eibartarrak zoro-zoro eginda dabixaz... Badakik astelehenian eibartar mordo bat etorri zala periodikua erostera plaentxiara Eibarren amaitsu egin zirala ta? Eske, eibartarrak edozer gauza...

“Inportantia dok eibartarrak ondo tratatzia, primeran daren bittartian behintzat”

Ondo pentsau bihar doguna dok plaentxiarrok zer irabazi geinken asunto horrekin. Nere ustez inportantia dok primeran daren bittartian, behintzat, eibartarrak ondo tratatzia, batez be Plaentxian bizi diranak: “onenak zarie... datorren urtian Europara... bla, bla, bla...”. Beste aukera bat izan leikek Primeran daren bittartian Eibarko zaletu egittia eta tarteka bisitan juatia bufandekin, turutekin eta hola. Eta Txuri-urdiak peñiakin ba... zurixan gainian granate pixkat margotu, labadoran kentzen dan koloriak, badaezpada, eta aurrera. Edozer gauza eibartarrekin ondo konpontziarren. Eta, igual, hola enrollauko dittuk eta egingo joskuek bidegorrixa Maltzaraino, eh!

Ez, benetan. Ointxe dok momentua eibartarren inguruko txiste barririk asmau eta plaentxiarrok potentzial umoristiko dana etaratzeko. Gainera, suerte pixkatekin datorren urtian ligia irabaziko juek edo tzanpionza, eta oindio gehixao emozionala dittuk... Aupa Eibar eta eibartarkeriak!

Egoitz!

Martxa hontan tzanpionzeko kopa helduko dok hona gertu. Finalera heldu ez badok be, Realak aurten ein jok saiakeria. Datorrenian Athletixan txanda izango dok, ia zelan moldatzen dan! Eta hurrengua, matematika kontua dok: Realan eta Athletixan ostian Eibarren txanda izangok tzanpionza honuntz ekartzen saiatzeko.

Etorriko dianak albora lagata, nabarmentzekua pentsatzen jatak talde txikixek beste talde erraldoieri erakusteko dakena. Aurrekontu txikixia eukitzia ez dok ametsak lortzeko traba. Gauzak zelan ein eta kontuak zelan antolatu dok giltza. Aurten, adibidez, arazo haundixak euki jittuek diru kontuekin. Legeren batek hala eskatuta, jeukan dirua baino gehixau eukitzera bihurtu juek. Diru hori batzeko proposatu ditzuzten bidiak eta moduak aztertzeak dittuk. Hori dok biharrezkua, ideiak eukitzia eta ez dirua, bakarrik.

“Aldameneko herritarren zorientasunaz gozatu geinkek”

Guk be ze aprobetxau izango juau ba! Gure potentzial umoristikua haunditu geinkek, halako hitzik baldin badok behintzat, eta betiko taldien jarraitzaile izatiaz aspertuta dauanantzat oin Eibarren jarraitzaile bihurtu leikek. Kamisetena konponduta jaukak, Realzalia edo Athletizalia baldin badok behintzat. Dana dala, ezinbestekua izango dok Eskoziako gona bat, edo, sikieran haren itxurako bat lortzia. Horrekin edozeñek emon ahal jokta eibarzale peto-petua. Besterik ez bada be, animo pixkat hartzeko-edo jai-girora hurbildu geinkek eta tarte baten ondokuen zorientasunaz gozatu.

Soraluze Ekinean!

EKITEN LAGUNDU

Ekintzaileen arteko harremanak indartzeko jarduerak sustatzea helburu duen programa

TAILER TRINKOAK
Nori zuzenduta?: Soraluzeko ekintzaileei
Datak eta ordutegia: Ekainak 9, 11, 13, 16, 18 eta 20. 9:30tik - 13:30tara
Tokia: Soraluzen

PLAZA MUGATUAK!!! Eman izena DOAN
 Bidali zure datuak ekintzaile@debegesa.com helbidera edo deitu 943 820 110 telefonora



Debegesa

1

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitatea:** Egoitz Unamuno **Diseinua:** Iñigo Urribetxerria **Maketazioa:** Oier Larreategi
Inprimategia: Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskarra bultzatzeko.



Gutunak

Soraluzeko **Gazteteke tabernaren oharra**

Gazteria

Argindarrik gabe gaudela-eta, gaztetekeko taberna itxita dago azken egunotan. Arazoa konpontzeko zereginetan gabiltza, lehen bait lehen barra ireki ahal izateko.

Arazoak arazo, aurreikusitako egitarau zati bat aurrera eramaten ari gara eta horretan saiaturako gara datozen egunetan ere. Ekintza hauetan elkar ikusiko dugulakoan agurtzen zaitugu

Soraluzeko EH **Hauteskunde europarrei buruzko balorazioa**

Bildu

Europar hauteskundeeetan atera dituen emaitzak oso onak izan direla uste du Soraluzeko EH Bilduk. Juaristi Europako parlamentari izango da.

Herrian lehenengo indarra izan da, EH Bilduk, alde nabarmena atera dio bigarren indarra izan den EAJri. EH Bildu herrian sendotuta dagoen koalizioa dela ikusten ari gara behin eta berriz.

Irakurketa pozgarri gehiago ere badira. Euskal Abertzaletasunak, oro har, gehien-go handia lortu du Euskal Herrian, eta hori oso berri ona iruditzen zaigu. Hego Euskal Herrian EH Bilduk jaso ditu bozkarik gehien. Bestetik, Gipuzkoan aise izan da indar nagusia EH Bildu, eta Araban ere lehenengo indarra izan da. Bizkaian eta Nafarroan, berriz, bigarren indarra.

Herrien erabakitze eskubidea indartuta atera da eta baita ezkerretik beste eredu sozio-ekonomiko defendatzen dugunon posizioa ere. Espainiar estatuan ere eredu hori kolokan jartzen duten indarrek emaitza onak lortu dituzte, eta horiekin elkarlanerako aukerak izango ditugula uste dugu, erabakitze eskubidearen gainean eta eredu sozio-ekonomikoarekiko kritiketan bat gatozenez gero.

Abstentzio maila altua izan da, eta jende askok ez du boturik eman. Hausnartu eta adi aztertu behar dugu zeintzuk diren botua ez emateko jendeak adierazten dituen arazoak. Bestetik, abertzale eta ezkertiar moduan, argi esan beharra daukagu gure helburuak lortu ahal izateko askoz borondate gehiago bildu beharrean gaudela.

Gure esker onik beroena zuen konfidantza eta laguntza eskaintzen diguzuen soraluzetar guztioi. Gogor jarraituko dugu lanean.

Maite Kintanilla, **Basarri bila**

Eneko Beretxinaga,

Gotzon Elizburu,

Eñaut Aiartzaguena

eta Irati Seijo.

Basarri bila gabizen herriko bost gazte gara, basarriko seme-alaben ondorenguak gehixenak. Batera bizi gara kaleko etxe baten, baina aspalditik daukagu gogua basarrixan bizitzeko. Errentan hartzia nahi genduke pare bat urterako. Baztarrak garbittu, ortu txiki bat ipini, oilo batzuk... Ez genduke besterik bihar.

Basarri asko dago herrixan hutsik eta zer hobe harendako bost gazte arduratsu teiltatupian hartzia baino. Badakigu basarrixa hutsik izan arren be, egunero bertara juateko ohiturria daukala askok; guretako ez litzake problema. Pentsauko genduke alkarrekin zela konpondu.

Laguntzerik bazenka, eskertuko gontsuke gurekin harremanetan jartzia. Edarki konponduko ginake.

Bittartetik



Lehen lerruan

Aurten ere ekainak 28 gerturatzen jaku, lesbiana, gay eta trans pertsonen askapenerako eguna, eta gure txokotxua dakagu gure herriko aldizkarixan be horren inguruan jarduteko (milesker!). Aurtenguan, ordia, ez dogu Komite Arroxtatik sekulako egitaraua prestatuko, ezta ekimen pilua aurkeztuko. Aurreko urtietan ugarixak izan dira antolatu dittugunak, baina aurtenguan ezin: talde txixixa gara, oso txixixa, eta kide danak oso lanpetuta gabiz. Ekimenen bat edo beste egongo da, baina ez beste urte batzutako sorta zabala.

Auto-kritika moduan pentsau leike kontua, pentsau leikegu gure bizitzetan (norbanako zein eragile moduan) jartzen dittugun lehentasunak nola neurtu beharko genduzen, sexu askapenaren aldeko borrokak eta LGTB duintasunak gure jardunian lehen lerrua bete deixan. Ez deixan izan gure eginbeharren zerrendan bat gehixau eta, gainera, azkenetarikua. Baina egunerokotasuna eta gure parte hartziak kudeatzia erraza ez dala be badakigu, ez gara horregatik geure buruekin hasarratuko.

Edonola ere beste kontua da Komite Arroxtatik sexua askapenaren inguruan ekimenik antolatu ezian beste edonork antolatuko ote dittuan. Auto-kritika eittiaz gain, beraz, elkarre, instituziño eta lagun-taldiak animatzeko aukeria be hartu nahiko neuke, ekaina gure agendetan markatu eta merezi daben lekua euki deixan.



“Dantzari berriak jai-giroan erakarri nahi ditugu, dantzatzea ondo pasatzea dela ikus dezaten”

Ezoz Arrillaga, Amaia Argarate eta Idoia Aldazabal Urratseko dantzariak eta Euskal Jai batzordeko kideak



Ezoz, Amaia eta Idoia, dantza taldeko kideak.

Haurren Euskal Jaiak 44 urte beteko ditu ekainaren 1ean, eta Urratseko dantzari nagusiak buru belarri dabilta Ezoziko Erromeria eguna prestatzen. Hainbat belaunalditako herritarrak batu dira aurten Urratsera eta talde sendoa osatzea lortu dute. Idoiak eta Ezozik, gainera, jaiak barrutik ezagutu eta Euskal Jai batzordean parte hartzea erabaki dute.

Soraluzen tradizio handia izan da dantzarako. Ze leku betetzen dute gaur egun euskal dantzek herrian?

Herrian edozer antolatzen dela ere, beti daude ume eta nagusi dantzariak kalean atera eta festan parte hartzeko prest. Azken urteotako makalaldiaren ostetik loraldia bizitzen dihardu Urrats dantza taldeak, eta ilusioa eta konpromisoa handia da dantzarien artean. Plazak berreskuratzea bada asmoetako bat, baina plazak ez ezik, euskal dantzak herritar-tzea dugu helburu.

“Oso emoziozko da denon lanaren indarrez aurrera egin dugula ikustea”

Nagusien taldean aurpegi berriak ikusten dira, hainbat belaunaldi, kalean ere asko jarduten duzue... zelako giroa dago?

Aurten sei lagun berri batu dira taldean eta oso pozik gaude, sekulako giroa dugu entseguetan. Dantzari gazteenak 22 urte ditu eta nagusienak 61, denentzat lekua dago hemen. Ikasteko gogo

askorekin gaude, pentsa batzuk etxean ere mobilarekin aritzen gara dantzan!

“Euskal dantzak herritartzea dugu helburu”

Zer ematen dizue dantzak?

Gehienok plazan aritu ahal izateko eman genuen izena, baina asko ikasteaz gain, poz handia ematen du lagunartean jarduteak. Jendea ezagutu eta barre asko egiten dugu, oso emoziozko da denon lanaren indarrez aurrera egin dugula ikustea. Badakigu barixakua ez dela oso ordu ona entseatzeko, eta egia da batzuetan nekeza egiten dela dantza saiora joatea, baina behin borobilean egonda asteko buruhausteak oinak mugitzen erretzen ditugu.

Herri honetan badirudi dantza emakumeen kontua dela, batez ere.

Paradoxikoa da, lehen dantza asko mutilentzat prestatuta zeuden! Gure kasuan dantza horrek emakumeok ikasi edo jai daukagu! Gero eta joera handiagoa dago neskak eta mutilak ez bereizteko, baina hala ere, leeroon bitartez herriko mutilak izena ematera animatzen ditugu!

Haurren Euskal Jaiak 44 urte beteko ditu aurten, baina badirudi gero eta gehiago kostatzen dela gaztetxoek euskal dantzetara erakartzea.

Gaur egungo umeek eskola kirolaren bitartez aktibitate berriagoak ezagutzeko aukera dute. Matrikulazio-epaia ere berandu irekitzen dugu eta ordurako,

aisialdia bete-bateta dute. Dantzari berriak jai-giroan erakarri nahi ditugu, ikas dezatela dantzatzea ondo pasatzea dela eta bide horretan, Euskal Aratosteetako proiektuarekin oso pozik gaude. Eskolako umei borobilean dantzatzen irakatsi genien, erakustaldia baino festan parte hartzeko beste modu bat dela ikasi zuten.

Herri dantzek loraldia bizi dutela dirudi. Zer daukate horrenbesteko arrakasta izateko?

Ikasteko dantza errezak dira eta jendeak izugarri ondo pasatzen du plazetan. Poztasun hori herriz-herriz kutsatu da eta azkenaldian izugarri hazi dira borobilean dantza egiteko saioak. Aiko moduko talde batek lan izugarria egin du plazak berreskuratzen, dantzatzea denon esku dagoela erakutsita.

“Dantzari gazteenak 22 urte ditu eta nagusienak 61”

Soraluzetar modernoak badu tokirik Euskal Jaietan?

Euskal Jaiak festa bat da, eta zenbat eta gehiago izan, orduan eta gehiago konpartitu eta gozatuko dugu. Egia da jantzi tradizionala erabiltzen dugula baina tradizioa eta modernitatea ez dute zertan kontrajarrita egon. Tradizioa garrantzitsua da, baina aurrera egin behar da eta sasoian sasoikora moldatu. Kulturalki oso aberasgarria da lehenago Euskal Jaietan zein joera zegoen ezagutu eta egun dagoenarekin uztartzea, eta bertatik bertara bizitzea.

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegileta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Mendata

Giro euskalduna
Etxean egindako pizak eta txipirolak

Hirigintza planeko proposamenen erakusketa

Udalak hirigintza plan orokor berriaren aurre-txostenean jasotako proposamenak ezagutarazteko erakusketa publikoa zabalduko du datorren astean. Batzar aretoan egongo da ikusgai, honako egunetan: ekainaren 4an eta 6an goizez (9.00etatik 12.00etara); 10ean eta 12an arratsaldez (18.00etatik 20.00etara) eta 16an, 18an eta 20an egun osoan zehar (9:00etatik 20:00etara).

Plan berriaren oinarriak

Plan orokor berria egiteko "irizpide eta egitasmo orokorrak jasotzen dituen aurre-txostena" maiatzaren 10ean aurkeztu zuten antzokian egin zen jendaurreko bileran. Idazkariak zehaztu zuenez, "indarrean dagoen plana 1999koa, eta zentzuzkoena berria egitea da. Aurretxostenean etorkizuneko planaren oinarri nagusiak daude jasota: zein gunetan esku hartuko den eta lurrek zein izendapen

izango duten. Zehaztasunak aurrerago erabakiko dira eta prozesu horrek urtebete edo bi iraun dezake".

Aurre-txosteneko proposamen nagusiek, batez ere, honako gunehauei eragingo lieke: Santa Ana - Ola bitarteko eremua, SAPA, Erregetxea, industriguneak, Gabolats eta Santa Anako zubiak eta hilerria. Udalak gogorazi nahi du aurre-txostena eskuragai dagoela udaltxeko harreran, eta edozein zalantza argitu nahi izanez gero, hitzordua ere eska daitekeela. Alegazioak aurkezteko epea, berriz, ekainaren 9ra arte egongo da zabalik.

Enpresa berriak sortzeko tailerrak

Debegesak eta Udalak elkarlanean antolatutako Soraluze Ekinean programaren barruan, enpresa berriak sortzeko ideiak eta ekimenak bultzatzeko tailerrak ekainerako antolatu dituzte.

EH Bildu izan da alderirik bozkatuena

Europako Legebiltzarrerako Hautes-kundeetan EH Bilduk, lehen indarrak, 516 bozka lortu ditu, EAJ izan da bigarren alderdia 378 bozkarekin, PSOE hirugarren 207 bozkarekin, PPK 120 bozka jaso ditu, IUk 41, Podemos-ek 39 eta besteak 50. Soraluzen parte-hartzea %44koa izan da, eta abstentzioa %56koa.



Txipdun edukiontzi marroiak ekainean

Materia organikoa sailkatzeko txipa duen lehen edukiontziak ekainaren 3an jarriko dira Loralde, Errekalde eta Baltegieta inguruetan, ekainaren 4an herrigunean, eta 5ean, Atxuri eta Sagarrekan. Txiparen sistema berriak parte hartzaileen datuak erregistratuko ditu, eta, hala, materia organikoaren gaikako bilketan parte hartzen duten herritarrak zein diren jakin ahal izango da. Helburua da 2016rako birziklatze tasa %60koa izatea.

Elkarretaratzea eta poteo-arroxa ekainaren 28an

Komite Arroxak prest du sexu askapenaren egunaren harira antolatuko duen egitaraua. Ekainaren 25ean, 21:30ean "Arrakala, zirikituko bat haitzean" dokumentala proiektatuko dute antzokian eta ondoren tertulian aritzeko tarte zabalduko dute. Ekainaren 28ko, 13:00etan, elkarretaratzea deitu dute, eta ondoren poteo-arroxa egingo dute herriko kaleetan zehar.

FotoNotizia



Andaluziarraren erritmora dantzan

Apirileko feria ospatu eta astebetez sevillar kulturaz jantzi zen Mesedeetako Amaren egoitza. Dantzak, apain-orraziak, kontzertu flamenkoa eta jaki andaluziarrak izan zituzten, besteak beste. Egoitzako aitxitxa eta amamak Eibarko SER irradian ere izan ziren eta euren festa eta esperientziaren berri zuzenean emateko aukera izan zuten.

M.A.H., S.L.
Tailerrak



Dekoletajeko piezen ekoizpena

Tel: 943 75 30 22; Fax: 943 75 30 88
Mendiola industrialdea 14; 3. eraikina
23 P.K. 20590 Soraluze

Javier Alberdi



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carniceria autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea gaur

Gaur "Giza eskubideak, irtenbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herri-
ra" lemapean presoen eskubideen alde batzeko deia egin du herriko beste kuadrila batek. Elkarretaratzea 20:00etan izango da, Plaza Zaharrean.



Erroberak zulatu dituzte Zeletan eta Gipuzkoako etorbidean

Udaltzaingoak jakitera eman duenez joan den asteburuan zortzi autoren erroberak zulatu dituzte, sei Zeleta bidean eta bi Gipuzkoako etorbidean. Guztiak gauz zulatu dituzte eta itxura guztien arabera, "kale bandalismoa" izan dela esan du udaltzaingoak. Kaltetuek salaketak jarri dituzte eta kasua Ertzaintzaren esku dago orain.

Itxaropenak Laredora irteera antolatu du

Ekainaren 11n Laredo ezagutzeko txangoa antolatu dute jubilatuek. 9:15ean Estaziño kaletik abiatu eta "La Bien Aparecida" santutegian egingo dute hamarretakoa. Bazkaria berriz, "El Pescador" jatetxean izango da, ondorengo menuarekin: kabratxo pastela, baba zuriak txirlekin, legatza mariskoz betea, etxeko tarta izozkiarekin, kafea edo infusioa eta txupitoak. Irteeraren prezioa 26 eurokoa da, autobusa eta jatorduak barne eta izen-ematea Itxaropenan egin behar da, lehen bait lehen. Informazio gehiago: 943752330 (Itxaropena).

Ehundaka herritarren eskuak erabakitze eskubidearen alde

Erabakitze eskubidearen aldeko herritarren mugimenduak babes handia jaso du herrian. Dagoeneko 300 soraluzetarrek baino gehiagok eman dute izena ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza-kate erraldoian parte hartzeko. Gainera, datozen egunetan kopuru horrek gora egin eta laurehunera heltzea espero dute.

Komertzio eta enpresen babesa

Antolatzaileek nabarmendu dute, "izugarria" izan da zapatuan zozketatuko duten oterra osatzeko jaso duten laguntza herriko komertzio, enpresa, erakunde eta kultur gileen aldetik (sariak Otharrin daude ikusgai). Mila eurotik gorako balioa duen oterra osatu dute, eta jasotako dirua 120 castellarsen bidaia eta egonaldia ordaintzeko erabiliko da.

Jaialdia, motorrak berotzeko

Astebururako antolatu duten bi eguneko jaialdiaren helburua giza-katerako motorrak berotzea izango da. Zapatu eguerdian mendizaleen lehen erreleboa ateratzearekin batera hasiko da eta domekan azken erreleboa heltzearekin batera amaitu. Bitartean, zubian egongo da jai gune nagusia eta denetariko ekimenak izango dira: blues kontzertua, sagardo kupelak, emakume-probak, txahalki erreka (Arizaga baserrikoa), erromeria, egurrezko eskua motozerrarekin... Hala ere, ikusminik handiena sortu duen ekimena arratsaldeko 20:00etan izango da: Tarragonako Nens del Verdrell castellars taldeak eskainiko duen giza-dorrea.

Castellersak zapatu goizean helduko dira herrira eta herriko elkarrekin bazkalduko dute: Allegroan, Mahastian, Lagun Maitean eta Arranoan. Arratsaldean giza-dorreak egin ostean udal-pilotalekuan egingo dute lo. Hurrengo egunean



Emakume proben entrenamenduek ikusmina piztu dute.

Hernaniko Galarreta frontoian egingo den jaialdian parte hartuko dute.

Oharrak ekainaren 8rako

Ekainaren 8an egingo den giza-katea eguerdiko 12:00etan hasiko da baina antolatzaileek ohartarazi dutenez 11:00etarako bertan izatea komeni dela. Soraluzetarrek Bergarako 32. kilometroan egon beharko dute. Antolakuntzak autobusak antolatu ditu eta astelehena baino lehen eman behar da izena. Autobusak goizeko 9:00etatik 10:30era bitartean aterako dira Estaziño geltokitik, eta 14:30etan edo 20:00etan Bergararik (aukeratu egin behar da). Kontuan hartu Bergaran egun osoko jai-egitarau berezia antolatu dutela.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Javier Alonso Zelaia
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GAZTELUPE

Gaztelupetarren proposamen berriak

Gaztelupek atek zabaldu dizkio berriz musika eta literaturari, *Ene uste makalean* eta *Vermouth musikala* egitasmoak antolatu dituzte.



Ekaitz Uzin, Kristina Laskurain, Gaizka Azkarate eta Martin Azkarate.

Kontzertu eta literatura-saio asko antolatu zituen Gaztelupek 90. hamarkadaren amaieran. Soraluzeko eta inguruetako jende askok gogoratzen du saio horien inguruan sortzen zen giro berezia. Hamabost urteren ostean, berriz ere, zuzeneko musika eta berbaldien saltsan dabiltza gaztelupetarrak. Hitzaldi gela bihurtu duten bigarren solairuan daude motorra eta Billie Holidayren erretratua, musikagune nagusia errepidearen bestaldeko terrazan eta garai haien orotzapen lausoa duen belaunaldi gaztea ibilbide berriaren gidaritzan.

Bihotza eta egoismoa

"Tabernako jardunaz gain, beste zerbait egiteko gogo" izan omen zen orduan musika eta bestelako disziplinetako ikuskitzunak antolatzera bultzatu zituena. Gogo

huraxe da, orain, Gaizka, Martin, Kristina eta Ekaitz "abentura berri honetan" abiatzeko bultzada eman diena. Horrekin batera, jarraitzen dituzten artistak eta lanak bertatik bertara ezagutzeko aukera ere motibazio iturri garrantzitsua da. Azken baten "parte bat da bihotza eta beste bat egoismoa".

"Gure filosofia artistei azpiegitura egokia eta gutxieneko ordaina ziurtatzea da"

Gonbidatuak ekartzeko orduan "ukaezina da urteotan disketxearekin egin dugun ibilbidean sortu diren harremanek asko errazten dutela programazioa osatu ahal

izatea, baina apustu ekonomiko garrantzitsua ere bada. Gure filosofia artistei azpiegitura egokia eta gutxieneko ordaina ziurtatzea da, eta horrek kostu bat dauka". Hala ere, "bezperan ateratako kubatekin" eta oraindik balizkoak bakarrik diren dirulaguntza publiko batzuekin Ene uste makalean eta Vermouth musikala egitasmoak bideragarri edo "jasangarri, behintzat" bihurtu litezkeenaren itxaropena dute. Orain arte antolatutako "saioek publikoarengandik jaso duten harrera onak" aurrera jarraitzeko gogoia ematen diete.

"Jaso dugun harrerak aurrera jarraitzeko gogoia ematen digu"

ENE USTE MAKALEAN

Lagunarteko
berbetaldi libreak

Martitzenetan,
19:30ean, Billie gelan

Morauk eskainitako
berbetaldiko une bat.



Kulturaz, euskaraz, musikaz, literaturaz... lagunartean jarduteko proposamena da. Pertsona bat gonbidatu eta berarekin gai orokor edo ez hain orokorrez jarduteko aukera. Saioak irekiak izango dira, eta parte hartzeko nahikoa da euskaltzalea edo kulturzalea izatea. Batzuetan mokadua eta edatekoa dastatzeko aukera ere emango dute saioaren amaieran. Joan zen martitzenean Andoni Tolosa *Morau* musikariak

eskaini zuen euskal kantagintzaren historia izan zen lehenengo saioa.

EKAINEN SAIOAK

3an - KOLDO IZAGIRRE

"Parisen bizi naiz" bere azken poema liburuaren inguruan.

7an - FERMIN ETXEGOIEN

Solasaldia irrati esatari, idazle eta musika-adituarekin.



KOLDO IZAGIRRE URREAGA

Parisen bizi naiz

Denok elkarrekin bizitzeko antolatu den gezur zoragarria da hiria, egunero suntsitua, egunero sortua. Territorio asko eta ezberdinak dituen lekua da hiria, bizikidetzarako helburu bat da, etengabe arazo sozialak eta arazo politikoak dauzkana.

Koldo Izagirre inguru periurbanoan jaio eta bizi izan da beti. Lurralde hori erakutsi izan digu "Non dago Basques' Harbour"-eko poemetan edo "Sua nahi Mr. Churchill"-eko ipuinetan.

Parisen bizi naiz liburuaren ardatz nagusia hiria da. Bertan elkartzen dira: hiriburuen porrota, krisi politikoa eta poetaren heldutasuna.

Xarra

VERMOUTH MUSIKALAK

Zuzeneko musika
domeketan

Domeketan,
13:00etan, terrazan

Igor Arzuaga, kontzertuan.



Domeka eguerdietarako proposamen musikala da, kalera irtetzeko aitzaki ona ematen duena. Maiatzaren hasieran eman zioten hasiera kontzertu zikloari, eta geroztik hainbat musika mota ekarri dituzte: jazz, bluesa, folk-rocka...

Azkenengo kontzertua joan zen domekan eskaini zuen Igor Arzuaga bakarlarriekin. Eguraldi txarra zela-eta taberna barruan egin behar izan zuten, baina, hala ere, giro polita sortu zuten Arzuagaren kantu bereziek.

EKAINEN SAIOAK

1ean - NEIGHBOR

Ura Patrikan diskoa aurkezten

8an - LA JODEDERA

Karibe Kantauri kantuan (euskaldunak eta kubatarak)

15ean - BLUES & DECKER

Asturiasko Blues laukotea

22an - VOCES Y CUERDAS

Boleroak Eibartik

29an - NOQUEL QUARTET

Klasikoa eta jazz Bilbotik (Miguel Salvador gitarra, Borja Barrueta bateria, Nohemí Ladrón de Guevara, biolina, Javier Mayor kontrabaxua)

MAITE LARBURU & JOSH CHEATHAM

Neighbor

Hotsak.com-en diskoen portadei begira niharduera, akuarelaz egindako batek erakarri zuen nire arreta: Ura patrikan, akuarela, ura, gorde ezina...

Beranduago AIZUI-n irakurri nuen Maite Larbururekin egindako elkarrizketa interesgarria. Hernaniar gaztea Amsterdamera joan zela biolina ikastera, eta han ezagutu zuela bere taldekidea den Josh Cheatham kontrabaxu jolea. Biak dira adituak antzinako musikan eta mundu osoan zehar jo izan dute. Gero, etxean, euren kantuak egin dituzte, euren neurri: Maiteren berbekin eta Joshen musikarekin.

Diskoa autoan jarri nuenean, ahots goxo bat entzun nuen euskaraz abesten. Segituan sumatu nuen ezberdina zela, eta egun batetik bestera, aspaldian izan dudan disko kuttunena bihurtu zen. Maila handiko musika, era soilean emana. Hainbat musika, instrumentu eta hizkuntza, poema sakonak... edertasun dosi izugarria. Oso gomendagarria.

Domenx Urzin

Ekintzaileen arteko harremanak landu eta herrian negozio berriak sortzeko ideiak lantzeko hainbat tailer egingo dira ekainean, Debegesak eta Udalak antolatuta.

Zein zerbitzu falta dugu herrian?



Leire Elizburu

Nire ustez argazkilaritza denda falta da. Badaude pertsona asko ordenagailurik ez daukatenak eta argazkiak errebelatu behar izaten dituztenak. Orain kanpora joan behar da horretarako.



Aitor Leturiendo

Kirol jantziak eta zapatak salduko litzuzkeen denda bat izatea ona litzateke. Gauza batzuk erostera kanpora joateko ohitura handia daukagu, baina herrian zer dagoen begiratu behar genuke gehiago.



Aitziber Atxa

Telefonia eta mugikorren gainean zerbitzua emateko denda bat izatea ondo legoke. Orain, kanpora joan behar izaten dugu horrelako kontuak egitera.



Ramon Agirre

Parafarmazia bat izatea ondo legoke. Nik ohitura handia daukat horrelako produktuak erosteko eta herrian ez dago. Bestela, lagun batek esan dit sagardotegi bat izatea ere ederra litzatekeela.

Lehiaketa

Zein da?



Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atara eta hurrengo barixaku eguerdian egingo da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidal ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.

Aurreko aleko erantzuna

Arkaitz Arana, andra probetako entrenatzailea.

Irabazlea



Miren Aranburu

Saria:

Iñarra harategian 30 euro gastatzeko bonoa



Kirol emaitzak

FUTBOL 7 TXAPELKETA

Yokohama chivas – Thangana	9-2
Artifices – PSL	6-1
Minavo de kiev – Kastakuak	7-3
F.C. Marruecos – Shalke te meto	4-10
Eusko Label – Makatzaga K.E.	4-3
Costo de marfil – Akeita	0-5
Los elegidos – Fronton Team	1-8
Bolaños – Resto del mundo	13-4

Agenda

FUTBOL 7 TXAPELKETA

Maiatzak 31, zapatua

9:00etan

Marruecos – Kastakuak

Los elegidos – Resto del mundo

10:15ean

Minavo de Kiev – PSL

Bolaños – Akeita

11:30ean

Thangana – Shalke te meto

Makatzaga K.E. – Froton Team

12:45ean

Artifices – Yokohama chivas

Costo de marfil – Eusko Label

GIMNASIA ERRITMIKOA

Erakustaldia ekainaren 8an

Herriko eta Eibarko 110 gimnastek erakustaldia egingo dute ekainaren 8an, 11:30ean kiroldegian. Saio honekin kurtsoa amaitutzat emango dute eta irailean hasiko dira berriro. Norbaitek taldean izena eman nahi badu kiroldegira jo dezake edo 943 752466 telefonora deitu eta Mariagatik galdetu.

MENDIA

Asteburupasa Lezakara

Ekainaren 28 eta 29an Lekaroz inguruak ezagutzeko asteburupasa antolatatu du umeen mendi taldeak. Irteeraren prezioa nagusientzat 45 euro eta umeentzat 35 eurokoa da (autobusa, afaria, armosua eta lo egiteko lekua barne) eta izen-ematea Iratxo goxodendan egin behar da, ekainaren 7a baino lehen.

Joseba Ramos lehena "Zona Norte" iraupen eta quad cross lehiaketetan

Quad gainean bi modalitatetan lehiatzen da Joseba Ramos soraluzetarra eta bietan "Zona Norte" sailkapeneko lehena da. Iraupeneko azken lasterketa maiatzaren 11n korritu zuen, eta podiumean lehena sailkatu zen, Andoni Astondoa eta Richman Nuñezekin batera. Domeka honetan izango du hurrengo lasterketa, Errioxako Villalbar herrian. Quad pilotuak azaldu duenez, iraupenean hiru aldiz lortu du azaroan bukatuko den txapelketan txapeldun izatea, quad crosean, berriz, behin ere ez. Bere asmoen artean dago, beraz, cross-ean ere onenen artean onena izatea.



Joseba Ramos lehian.

Ezin izan dute Kopa herrira ekarri

2-0 galdu zuten Gipuzkoako Kopako finalerdia Oiartzun taldearen aurka, eta, ondorioz, finala jokatzeko aukerarik gabe geratu da Erregionala. Partida zaila izan zela, eta oiartzuarrak hobeak izan zirela azaldu dute zuzendaritzatik. Ekainaren 14an Soraluze Futbol Taldeko jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritzako kide eta klubeko arduradunek denboraldi amaierako afaria egingo dute. Mahaiaren bueltan ehun lagun inguru batuko dira, eta afal ostean denboraldiko jokalaria erregularrenak eta goleatzaileenak sarituko dituzte.



Erregional taldearen hamaikakoa.

Zigor Alberdi lehen 50en artean, Palmako Transvulcania ultramaratoian

Mundu osotik joandako 1459 partehartzailek korritu zuten maiatzaren 10ean 73 kilometro eta 8525 metroko desnibela duen Palmako Transvulcania ultramaratoia. Zigor Alberdi 50. postuan helmugaratzea lortu zuen, 8:58:20 denbora eginda.



Zigor Alberdi, helmugan.

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santo Ana, 13 - 1. esk.
Telefono: 943 75 17 82 Fax: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

JUAN MARI
ARRINDEGIA

943 75 24 40

MERKATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLAZA KANTARARI
GUGEN UZTARREKO KONPLANTZAGETIKU

Salamanca abesbatzaren kantaldia bihar 18:00etan



Irudian, Salamanca abesbatza.

A benduan Ezoziko Ama Abesbatzak Salamanca eskaintako kontzertuaren truke, Agrupacion Coral Annuba abesbatz kantaldia eskainiko du bihar, 18:00etan antzokian. Hamasei abestiz osatutako erreperitorioa dakarte eta emanaldiaren bukaera herriko abesbatza taulagainera igoko da, Mikel Laboaren "Txoriak txori" eta Jabier Bustoren "Esta tierra" kantak elkarrekin abesteko.

Debagoieneko 150 dantzari elkartuko dira domekan

Txistularien kalejirarekin hasiko da 10:30ean, XLIV. Haurren Euskal Jaia eta ondoren irtengo dira dantzariak ka-

lejiran. Goizeko dantza saioaren ostetik, bazkaltzeko etxeetan eta elkarte gastronomikoetan banatuko dira umeak eta arratsaldean berriz alardea dantzatu dute Plaza Zaharrean. Ekainaren 14rako zehaztu dute, bestalde, aurten go Erromerixa Eguna. Goizean Plaza Barrixan salda eta txorizoa hartuta, Ezozira kalejiran joango dira eta bertan dantza saioa eskainiko du Urratsek. Bazkalorduan ermitako atari eta inguruetan bazkaltzeko aukera izango da (lekua hartzeko Iratxo goxodendan eman behar da izena). Bazkalostean Xero Xiettek dantzarako ohikoak diren doinuekin alaituko du Ezoziko jai-giroa.



Erromerixa eguna, ia.

Plazatik Gaztetxera sariketako finala bihar, gaztetxean

Antzuola, Mutriku, Eibar, Deba, Markina eta Elgoibarko kanporaketen ostean, bihar Soralezeko gaztetxean txapelketako finala jokatu dute zortzi bertsoari: Amaia eta Mikel Iturriotz, Maddi Sarasua eta Manex Astigarraga, Jokin Bergara eta Manu Goigana, eta Asier Azpiroz eta Adur Gorostidi. Eguerdiko 12:00etan triki-poteoa hasiko da, eta bazkalostean, 16:30ean ekingo zaio bertso-saioari. Bazkarirako izen-ematea zabalik dago Gaztelupen eta Arranon, 5 eurotan.

Kultur agenda

Gaur, barixakua

TRIPAFESTA AFARI BEGETARIANOAK
20:30ean, gaztetxean
Ant: Tripafesta taldeak

Ekainaren 2tik 14ra

PANPINA ERAKUSKETA
Sorkunde Etxeberria
Kiroldegiko erakusketa-aretoa
Ant: Udaleko Kultura Batzordea

Ekainak 5, eguena

HITZALDIA
Abortuaren gaineko hitzaldia
Hizlaria: Itsaso Cañada
Arratsaldeko 18:30ean, antzokian
Ant: Udaleko Parekidetasun Batzordea

Ekainak 7, zapatua

FLAMENKO IKUSKIZUNA
"X Tablas" Miriam Lorenzoren eskutik
22:00etan, gaztetxean
Ant: Soralezeko gazteria

Ekainak 13, barixakua

ANTZERKIA
"Catastrofen"
19:30ean, gaztetxean
Ant: Soralezeko gazteria

Ekainak 18, eguaztena

HITZALDIA
"Etorkinek jakin beharrekoak"
Arratsaldeko 17:00etan, antzokian
Ant: Udaleko Ongizate Batzordea

MUSIKA ESKOLAREN EMANALDIA
Ikasturte amaierako kontzertua
Arratsaldeko 19:00etan, frontoian
Ant: Soralezeko Musika Eskola

Ekainak 21, zapatua

BIZIKALE ELKARTEAREN AZOKA
Goizean salmenta postuak Zubi Nagusian
Arratsaldean tabernak eta janari dendak kalean
Ant: Udala eta Bizikale Merkatari Elkarte

Ekainak 23, barixakua

UDATE FESTA
Gaueko 21:00etatik aurrera, Plaza Barrixan
Ant: Pil-Pilean Kultur Elkarte

SOMABE

- Makina bereziak
- Lerro automatikoak
- Estankotasunaren kontrola

943 75 18 01 • Mendiola industrialdea 14, Soralez

laibi
ELECTRICIDAD

Mendiola industrialdea, 13
20560 SORALUZE (Gipuzkoa)
Tel. 943 75 12 69 • 616 168 227
Faxa 943 75 23 41
gabillondo@laibi.net • www.laibi.com

Zorion agurrak



Markel Cerrajon Atxa
Apirilaren 26an 2 urte!!
Zorionak etxeko txikixari eta txokolatzeko muxu goxo asko danon partez!



Maddi Oregi
Ekainak 7an 4 urte!!
Maitagarri haundixa zaralako, pilo bat maitte zaitugu!!!
Segi zintzua izaten. Muxu bat etxekuen partez!!!



Inar Arroyo Madera
Maiatzaren 24an 3 urte.
Zorionak, txikitino!
Etxeko guztien partetik.



Federiko eta June Eguren
Zorionak bikote, bixak batera
93 urte. DI-DA!!



Begoña eta Nora
Maiatzan 24an urtiak bete ditzuzelako!
Muxu haundi asko, etxekuen partez.



Eneko Alvarez Basauri
Maiatzan 11n
Zorionak mutil haundi!!
Bederatzi tirakada belarritik etxekuen partez.



Nagore Gonzalez
Zorionak polittori! Goza itzazuzela bizitzako une guztiak!
Besarkada potolo bat etxeko guztien partez!



Idoia Hernandez eta Uxue Ariznabarreta
Maiatzian 13 urte bete ditzuzelako, zorionak eta muxu pila maitte zaituenon partez!



Irune eta Juanan Varela
Maiatzak 20 eta 21ian.
Zorionak bikote! Patxo haundi bana etxekuen partez.



Nagore Caballero Mendizabal
Zorionak gure etxeko txikixenari!
Asko maitte zaitugun guztiok, egun zoriontsua opa dotsugu!

Jaiotakoak eta hilolakoak



Lemliha Gadi Hanafi
Rayan Slimane Gaidi
Naira Habegger Peñalba
Jone Urriaga Ortega




Jose Luis Alberdi Telleria
Iciar Garaizabal Elizburu
Odilo Miguelez Alonso
Teresa Zarobe Esnal
Manuel Fernandez Perez
Elena Escribano Casco



KM Desing
Disenua eta Sormena
Peligona Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:


- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armainuak
- Barruko altzairuak



PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



Elizpe Hartz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikusizina
- Implantzak

DOHANIZKO BERRIKIKETAK
FINANZAKETA ZURE NEKAZIA
KOMPROBATORIK GABEKO BARRERKANTUA

MUTUALIA, PADI (hasmen arretarako hartz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 beheko, Soralueze



Soraluzeko Kooperatiba Elkarte

1910etik

943 75 13 45



Iturria: Kristina Laskurain.

Poesia gaua Gaztelupen

1996an Gaztelupe tabernan egin zuten poesia irakurraldia. Barra gainean liburuak jarrita ageri dira Joxe Felix Azkarate *Xarra*, ezezaguna, Jose Luis Otamendi eta atzean argazkia ateratzen ageri da Iñigo Aranbarri (azken bien irakurraldia egin zen). Xabier Montoia musikari eta idazlea ere hor nonbait zebilen, argazki honetan ageri ez den arren. Tabernako bazter guztietan irakurri zituzten poemak, bai gonbidatuek eta baita ikusle moduan zeuden hainbat herritarrek ere. Garagardo botila eta zigarro ke artean uztartu ziren poemak eta pertsonak...



JACINTO GANTXEGI ARANZABAL
2012KO MAIATZAREN 13AN
II. URTEURRENA

*"Gure artean izan dugun maitasunari
eutsi eta ez etsi, orain aurkituko baitugu
amaituko ez den poztasun
eta beti euki dozun alaitasun hori.
Ez adiorik, gero arte baizik.
Gurekin egingo zara gaur eta beti"
maite zaitugu*

Etxekoak



LAZARO LAGOMA LABARI
2013KO MAIATZAREN 20AN
I. URTEURRENA

*"Haizeak dakarrena, haizeak darama,
betiko izango zaitugu gogoan.
Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik"*

Etxekoak

ZURE UNEA DA, ZURE ETORKIZUNA DA,
ZURE LANA DA!

*Matrikula zaitez
Lanbide Heziketan!*



IEFPS-GLHBI
ArmeriaEskola^x
EIBAR



Izenematea:
Maiatzaren 27tik ekainaren 6arte
Tfnoa. 943 20 32 44 - eibar@armeriaeskola.com



www.armeriaeskola.com

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

aurten

5ehun

baietz!!

Badakizu errenta aitorpena
euskaraz egiteko aukera duzula?
Eta euskaldunok euskaraz egiten ez badugu,
zeinek egingo du ba?
Euskaraz, zeure aukera da!



ERRENTA
2013

GURESKUNTZA

MAIATZAK 31 - EKAINAK 1

JAIALDIA

KARAKATE 24 ORDUAN

Zapatuan 12:00etan hasita



EMAKUME PROBAK

Zapatuan 18:30ean



BAIETZ 400

SORALUZETAR GIZA KATERA!

Herritarrok gai gara nahi
duguna lortzeko!
Erabakitzeko eskubidea
lortzea ere geure esku
dago!

EGURREZKO ESKUA

Domekan 11:00etan



CASTELLERSAK

Castellersak Zapatuan 19:30ean

Horrekin batera:

Txahal errea, sagardoa, herri-dantzak,
erromeria, metro eta material salmenta ...